

TRANSHUMANISMOA ETA “Z” BELAUNALDIA



Pablo Salaberria
Luka Urretabizkaia
Aitor Villalain

AURKIBIDEA:

GAIA	3
HIPOTESIA	3
LABURPENA	3
ABSTRACT	4
MARKO TEORIKOA:	5
MARKO TEORIKOA: TRANSHUMANISMOA	5
METODOLOGIA	7
ONDORIOAK:	9
BIBLIOGRAFIA	11
ERANSKINAK	12

GAIA

Teknologia berriei esker izaki baten kode genetikoa aldatzeak gizartean izan ditzakeen ondorio moral eta etikoak.

HIPOTESIA

Guk adin ezberdineko jendeari bidaliko dizkiegu gure galderak. Alde batetik, gure adin tarteko gazteei, eta bestetik, hirugarren adineko pertsonari; bi iritzi hauek kontrastatuko ditugu. Galderak hauek izango lirateke: Zuk seme bat edukiko bazenu nahiko zenizkioke aldaketa genetikoak egin? Eta zergatik? Uste duguna da denek baietz esango luketeela baina ondoren berriro galdetuz gero, gazte askok beraien iritzia aldatuko luketela.

LABURPENA

Sortu diren teknologia berriei esker, are gertuago ikusten da kode genetikoaren aldaketa. Erraztasun horren ondorioz, jende asko hasi da etorkizunera begiratzen, bereziki transhumanistak, hauek pentsatzen baitute gizaki "perfektu" bat sortu daitekeela.

Ikerketa honetan transhumanismoaren arazo etiko eta sozialak ikertuko ditugu. Gure lanaren helburua da gaur egungo gizartearen iritzia erakustea eta honekin ondorioak ateratzea. Gai hau aukeratu genuen gaur egun teknologiak asko aurreratu duelako eta gai hau aurrerapen bat izan daitekeelako etorkizunean.

Honen harira egoera hau gizarteari aurkeztea erabaki dugu, edozein pertsonari galdetuz ea beraiek nahiko luketeen transhumanistek bezala beraien gizaki perfektua sortu. Guk uste dugu gehienek bi aldiz pentsatu gabe baietz esango luketeela, beraien semea fisikoki, mentalki eta osasunarekiko ondo egoteko.



ABSTRACT

Due to the new technologies that have emerged, the genetic code change is still closer to being seen. As a result of this facility, many people have begun to look to the future, especially transhumanists, who believe that a "perfect" human can be created.

This research will investigate the ethical and social problems of transhumanism. The purpose of our work is to show the opinion of the society of the present day and draw conclusions from it. We chose this subject because technology has advanced a lot in the present, and this issue may be one of these advances in the future.

We have decided to introduce this situation to society by asking any person if they would like to create their perfect human being like the transhumanists. We think most people would say yes without thinking twice, that their son would be physically, mentally, and healthy. On the other hand, we believe that if we asked them the same question again, they would change their opinion.



MARKO TEORIKOA:

Marko teorikoa artikulu zientifikoen teoria eta kontzeptu nagusiak definitzen dituen zatia da. Bertan artikulu zientifiko ezberdinak aurkezten dira, teoria ezberdinen oinarria azalduz eta hitz klabe eta gauza garrantzitsuenak azalduz, ondoren lan bat oinarri on batekin egiteko.

MARKO TEORIKOA: TRANSHUMANISMOA

Marko teoriko honetan guk aukeratutako hiru artikulu laburtu ditugu eta horrela gaiari jarraipena ematen diogu. Artikuluak hauek dira: *“Gizakiaren eboluzioa”*, *Qué es el transhumanismo y por qué muchos aseguran que es un futuro inevitable* eta *“Aporías transhumanistas: Ideologías de la tecnología en el proyecto del auto-diseño humano”*. Segida honetan laburtu ditugu. Guk planteatutako hipotesian gizakiaren eboluzioa oso garrantzitsua da, izan ere, transhumanismoari buruz hitz-egiten dugu eta hau nola gertatu ahal izango litzateke. Gure ustez aldaketa genetikoaren esker gerta daiteke hau eta gizakientzat eboluzio handia izango litzateke.

“Gizakiaren eboluzioa” artikuluak gizakiaren eboluzioari buruz hitz-egiten digu. Hau da, nola hasi eta nola joan zen gizakiaren eboluzioa kontatzen digu. Eboluzio hau Afrikan hasi zen orain dela 5-7 milioi urte. Hau hasi zen bi zatietan banatu zenean primate familia bat, batzuk zuhaitzetan gelditu ziren, aldiz, besteak lurrera jaitsi ziren eta horrela bipedoak bihurtu ziren. Bipedoak izatearekin goiko bi besoei erabilera eman zieten. Eboluzioaren ideia Charles Darwinek argitaratu zuen eta horrela kreazionismoa atzean utzi zen.

Diéguezek (2019), transhumanismoari buruz hitz-egiten du eta honek ekar ditzakeen ondorioez. Transhumanismoa etorkizuneko ikuspegi garatu bat da, non pentsatzen da gizakia hobetu ahal dela teknologiarekin. Gai honen harira, galderak planteatzen dizkigu idazleak eta aldi berean informazioa ematen digu. Gainera, transhumanismoa teknologiarekin lor daiteke, azken urteetan ageri diren metodo aurreratuei esker. Aurrerapen hauen artean, kode genetiko aldatzearen aukera dago, honi buruz ere hitz-egiten du Diéguezek, eta era berean, orain teknologiari diogun dependentzia, izan ere, behar batean bilakatu da eta ezinbesteko tresna batean ere gure egunerokorako. Transhumanismoa oso garrantzitsua da gure gaian,

izan ere, gure laneko osagai garrantzitsuena da. Azken finean, gizakion eboluzioa da, eta transhumanismoak hau planteatzen du, helburutzat, gizakiaren aurrerapena eboluzioaren bidez, teknologia berrie esker.

Artikulu hau aukeratu dugu gizakiaren eboluzioa oso garrantzitsua delako gure gaiarentzat, izan ere, guk planteatzen dugun ideia berriro gizakiok eboluzionatzearen aukera da.


Gailu elektronikoak geroz eta gehiago ari dira integratzen gure bizitzan, ohikotasunean bilakatzen. Askok diote etorkizun saihestezina dela, orain edo gero gertatuko dela gizakiak teknologiaren kontrolpean egotea, baina batzuek soilik pentsatzen dute elementu teknologikoen konbergentziak nola eraldatuko duen gizartea.

Gure azken urteetan, normalean, osasuna eta argitasuna txikitzen dira eta, horrekin batera, gaitasun kognitiboa murrizten da. Horregatik, idazleak galdera bat botatzen du: Hau da benetan espero dezakegun onena? Transhumanistek ezetx diote, zahartzea gelditu egin ahalko litekeela, baita itzuli ere eta hobekuntza batzuek gure adimen-koefizientea handitu eta indartsuago bihurtzaketela.

Baliteke gure gorputz hauskorak atzean uztea, gure kontzientzia ordenagailu batean kargatuz, eta horrela mundu birtualetan betirako bizi izateko.

Printzipio berri bat litzateke, ezagutzen dugun gizartearen amaiera. Transhumanista askoren ustez, hori desiragarria ez ezik, saihestezina ere bada. Etorkizuna adimen artifizialari dagokio.

Horrez gain, gaur egungo gizaki askok mito ezberdin asko sortu ditu eta zientzia mito horiek ulertzen saiatu da modu ezberdinetara arrazoituz. Mito guzti hauek jainko berrietan sinisten dute gehienbat, eta zientziarekin eta teknologiarekin daude eralazionatuta, sistema-berriak, gailu inteligenteak, etorkizuneko zientzilariak, bizidun inmortalak, teknologiaren bidez eraldaketak... .




Idea guzti hauek etorkizunerantz pentsatuz daude eginak, gehienbat izaki bizidunetan teknologiaren bidez aldaketak sortzeko. Transhumanisten modura mito hauen bidez pentsatzen dute etorkizunean gai izango garela teknologiaren bidez personetan aldaketa fisikoak zein mentalak egiteko. Nahiz eta mito guzti hauek teknologiarekin erlazionatuta egon, askok diote oinarria filosofiarekin erlazionatuta egon daitekeela, zehazki antzinako filosofiarekin.

METODOLOGIA

Gure metodoa galdetegi bat egitea izan da, adin ezberdineko pertsonentzako, baina bereziki 13 eta 25 urte bitarteko pertsonentzat eta 65 urte baina gehiago dituzten pertsonentzat egin dugu.

- Diseinua:

Galdetegiko galderak prestatzeko, sekzio ezberdinetan banatu dugu galdetegia. Lehenengo zatian, galdera pertsonalak egin ditugu, guztiak aukerazkoak, sexua, bizilekua, adina... . Ondoren, gure proiektuaren gain sarrera bat egiteko, teknologiaren inguruan galdetu diegu eta teknologiarekiko duten erabilpenaren inguruan, bertan eguneroko galderak egin dizkiegu, zenbat ordu erabiltzen duten teknologia, zenbat gailu elektroniko dituzten, zein esparrutan erabiltzen duten... . Berriz ere erantzun modura aukerazkoak jarri ditugu.



Azkenik, galdetegiko azken sekzioan, gure proiektuko gaira jo dugu zuzen zuzenean, hasteko kode genetikoak zer den galdetuz hurrengo galderak ondo erantzun ahal izateko. Gainera kode genetikoaren aalpena eta transhumanismoaren definizioa jarri dugu norbaitek zer den jakingo ez balu. Azken sekzioarekin jarraituz kode genetikoaren inguruan galdera gehiago egin ditugu, “Bai” eta “Ez” erantzunak jarritz.

Amaitzeko gure laneko galdera nagusia egin dugu, egoera zail baten aurrean jarritz, teknologiarekin pertsona baten kode genetikoa aldatzeko aukera balego ea beraiek beraien senide bati zerbait aldatuko lioketen galdetuz. Azken sekzio honetan galdera mota ezberdin bat jarri dugu, aukerakoak alde batera utzita eta 0 tik 10 erakoak puntuatzekoak erabiliz.

- Prozedura:


Galdetegiaren erantzunak jaso ahal izateko, pertsona ezberdinei bidaliko diegu galdetegia. 13 eta 25 urte bitarteko eta 65 urtetik gorako pertsonei bidaliko diegu galdetegia. Bi adin tarte aukeratzeko arrazoi nagusi bat dago, gure lanaren bidez bi alderdi oso ezberdin alderatu nahi izan ditugu, hasteko teknologiarekin egunerokoan kontaktu gehien duten pertsonekin, kasu honetan gazteekin eta bestelde teknologiaren erabilpena oso handia ez duten pertsonekin, kasu honetan 65 urteko baina gehiagoko helduak. Modu honetara bi iritzi oso ezberdin jaso ahal izango ditugu, eta guk aurretik ustegenuen hipotesia baieztatu dezakegu, gazteek erantzun behar dutenaren inguruan eta helduek erantzun behar dutenaren inguruan aldezaurretik pentsatuz.

ONDORIOAK:

Galdetegia egin eta elkarrizketatu ditugun pertsonen erantzunak jaso ondoren ondorio batzuetara iritsi gara. Jasotako erantzunei esker, esan dezakegu gizartean teknologia ezinbesteko premia batean bilakatu dela, izan ere, 13 eta 18 urte bitarteko guztiek teknologia erabiltzen dute. Berriz, 65 urtetik gorako askok erabiltzen dute baina badaude batzuk (7 tik 3) uste dutela beraien bizitzan teknologia ez dela erabilgarria.


Teknologia zure egunerokoan erabilgarria da?

13 eta 18 urte bitartean



Teknologia zure egunerokoan erabilgarria da?


65 urtetik gora



Bestalde egunean gutxi gorabehera elkarrizketatu gehienek 4-6 ordu bitartean igarotzen dute teknologia erabiltzen, honen arrazoi nagusia beraien adina da, elkarrizketatutako asko gazteak direlako. Teknologiako galdera orokorrekin amaitzeko, gaur egun asko egiten den galdera bat bota diegu elkarrizketatuei, “Teknologiarik gabe bizitza normala egiteko gai izango zinateke?” eta espero genuen bezala gazte askok ez lirateke gai izango bizitza normala egiteko teknologiarik gabe. Bestalde 65 urtetik gorako pertson ia guztiek esan dute gai izango liratekela. Datu hauek atera ondoren esan dezakegu gazte gehienak ez direla gai teknologiarik gabe bizitzeko eta helduak berriz teknologiarik gabe ez lituzketela arazorik izango.


Teknologiarik gabe bizitza normala egiteko gai izango zinateke?

65 urtetik gora




Teknologiarik gabe bizitza normala egiteko gai izango zinateke?

13 eta 18 urte bitartean




Kode genetikoaren inguruan galdetu ondoren, ohartu gara kontzeptu hau ez dagoela hain argi, elkarriketatutako askok ez dakitelako zer den. Baina azaldu ondoren eta iritzi ezberdin askoren ondoren, askok uste dute teknologiaren bidez kode genetikoaren aldaketa kaltegarria izan daitekeela gizakiontzat. Bestalde, uste dute nahiz eta gaur egun teknologiaren bidez kode genetikoaren aldaketa oso garatua ez egon, etorkizunean garatuago egongo dela eta gizakiena aldatzeko gai izango direla teknologiaren bidez.

Teknologiaren bidez kode genetikoan aldaketak egitea onuragarria izango litzatekeela uste duzu? 65 urtetik gora




Teknologiaren bidez kode genetikoan aldaketak egitea onuragarria izango litzatekeela uste duzu? zutabearen... 13 eta 18 urte bitartean




Azkenik, gure gaiaren inguruko galderarik garrantzitsuena egin diegu elkarriketatuei. Egoera zail baten aurrean jarri ditugu eta bertan beraien seme edo alaba bati ea beraien kode genetiko aldatuko lieketen galdetu diegu, bai fisikoki bai mentalki, beraiek nahi duten bezalakoak izateko. Galdera honetan ondorioak ateratzeko, berriz ere erantzunak adinarekiko banatu ditugu, 13 eta 18 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak, modu honetara bi ikuspuntu ezberdin ikus ditzakegu.

Emaitzak jaso ondoren esan dezakegu gazteak, hau da, 13 eta 18 urteko gehienak ez lieketela beraien seme edo alaba bati kode genetiko aldatuko, nahiz eta erantzunak oso parekatuak egon, %30,8 ak baiezkoa dio eta %69,2 ak berriz ezezkoa. 65 urtetik gorako pertsonen erantzunak erreparatuz, esan dezakegu denek nahiko iritzi antzekoa dutela eta aukera izatekotan beraien seme baten kode genetiko ez luketela aldatuko. Hau esan dezakegu jasotako erantzunei esker, izan ere %85,7 ak ezezkoa esan du eta aldiz 14,3 ak baiezkoa. Beraz esan dezakegu, gazteak zein helduak iritzi berbera dutela eta beraien senide bati ez lioketela beraien kode genetiko aldatuko.

Posible balitz, zure semeari aldaketaren bat egingo zenioke nahi duzun bezalakoak izateko? 13 eta 18 urte bitartean



Posible balitz, zure semeari aldaketaren bat egingo zenioke nahi duzun bezalakoak izateko? 65 urtetik gora



BIBLIOGRAFIA

- BBC News. (2018). *Qué es el transhumanismo y por qué muchos aseguran que es un futuro inevitable*. Berreskuratua:
<https://www.bbc.com/mundo/noticias-42751366>
- Bostrom, N. (2011). *UNA HISTORIA DEL PENSAMIENTO TRANSHUMANISTA - A HISTORY OF A TRANSHUMANIST THOUGHT*. Berreskuratua:
<https://www.bioeticadesdeasturias.com/wp-content/uploads/2018/01/Una-historia-del-pensamiento-transhumanista.pdf>
- Diéguez, A. (2017). *Transhumanismo: La búsqueda tecnológica del mejoramiento humano*. Herder. Berreskuratua:
https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=5gSIDwAAQBAJ&oi=fnd&pg=PT2&dq=transhumanismo+y+tecnologia&ots=J5za3MbrWN&sig=PI-sSgKhBxDYpOTf23QSg6K2vc&redir_esc=y#v=onepage&q=transhumanismo%20y%20tecnologia&f=false
- Editorial Etecé. (2021). Berreskuratua:
<https://concepto.de/evolucion-del-hombre/>
- Hottois, G. (Data gabea) *¿El transhumanismo es un humanismo?*. Berreskuratua:
<https://repositorio.unbosque.edu.co/handle/20.500.12495/3373>
- Vaccari, Andrés P. (2016). *Aporías transhumanistas: Ideologías de la tecnología en el proyecto del auto-diseño humano*. Berreskuratua:
<https://rid.unrn.edu.ar/handle/20.500.12049/4175>

ERANSKINAK

KONTZEPTUAK:

- Teknologia: Espezie batek modu sistematiko eta arrazionalen behar edo arazo praktikoei erantzuteko ebatzen teknikoak deskribatu, hau da, diseinatu eta aplikatzea ahalbidetzen duen zientifikoki antolatutako jakintza-multzoari deritzo teknologia.
- Transhumanismoa: Transhumanismoa, jendeak erabiltzen duen modu bat da teknologiaren bidez pertsonen baliabide fisikoak eta mentalak obetzeko.
- Kode genetiko: RNAn nukleotidoen sekuentzia bat nola itzultzen den definitzen duen arau multzoa da.
- Eboluzioa/Aurrerapena: Zerbait bere egoera normaletik beste egoera desberdin edo modernoago batera pasatzea.